

## Langile

**A**ldarrikapen egun gutxi gelditzen zaizkigu, gaurkoa izan daiteke ba-kanetakoa. Jarrera orokorra dago aldarrikapena festa bihurtzekoa (ez bedi hau kritikatzat uler: gauzak salatzeak ez du zertan beti goibeltasunaren uztaipean egonik), gero festa edukiz hustu eta azkenean



**JIRA**  
Angel Erro

kontsumorako aitzakia huts bilakatzea. Asko dira adibide posibleak. Gaurko egunean, amaren eguna ere ospatzen denez, hau da, onenean loreak edo liburu bat -apirilaren 23a aurreko astean izan zen-, txarrean xurgagailu edo lisaburdina opari emateko eguna, gehienetan amak berak prestatu bazkari baten inguruan, baten bati bururatu ahal zaio langileen eguna, langileen arteko elkartasunaren eguna, pixka bat zaharkituta gelditu dela, kaleko manifestazio horiekin guztiekin, eta hobe litzatekeela, langileei onura gehiago ekarriko liekeela, ekonomia suspertuz, hots, gastua eginuz, gaurkoan etxeko langileari (langilerik dagoen etxean; bestela, langile izandakoari edo, orain ez den arren, halakoa izan nahiko lukeenari) zerbait oparitutako balio, bakoitzaren lanerako tresnaren bat (bi xurgagailu edo lisaburdina amen kasuan), paperean eduki bildua, «langilearen egun zoriontsua!» opatzearekin batera. Ez egin irri. Ongi dakizue iritsiko dela.

## Sindikalkidismoa

**S**indikalisten seme-alabak garenontzat, urte osoa da 2016ko maiatzaren 1a, amaren eguna eta langilearena batera. Ohituta gaude afaritan metaleko hitzarmenaren inguruko gorabeherak aditzera; irrigarriki boteretsu sentitu ohi gara gure lehenbiziko lan kontratu prekarioa sinatzen dugunean -argi ibili nola kaleratu behar nautzun, amari esango diot eta-; eta denbora pixka bat behar izaten dugu ulertzeko etxe-koak ez diren beste sindikatu-tuetako kideak ere jende jatorra izan daitezkeela. Etxe batzuetan futbolako taldeekin gertatzen denaren ant-



**BIRA**  
Samara Velte

tzera.


Azkenaldian, ordea, nahiko etsita sumatzen dut ama langile mugimenduari. Berak dio aspaldi hasi zela haren beherakada, garagardea botiletan fabrikatzen hasi zirenean. Horren aurretik, beharginak ezinbestean elkartzen ei ziren tabernan lantokitik ateratakoan, kupleetik ateratzen zirelako iluntzeko tragotxoak. Mahaia baldintza materialak eskaintzen zizkien, eta garagardeak egiten zuten gainerakoa: berehala hasten ziren enpresari eta nagusiei buruz bereak eta bi esaten, eta horrela mantentzen zen sendo langile mugimendua.

Garagardea botiletan saltzen dutenetik, amaitu da hori guztia, dio amak. Orain lantokitik etxerako bidean erosten dugu tragoa, eta sofán edaten dugu telebistari begira. Bakarrik, inorekin hitz egin gabe.

## 22 Iritzia

# Oztopo guztien gaineretik, biktimen lege berri(rantz)

**Jon Mirena Landa**  
Zigor zuzenbideko katedraduna



**O**tsailaren 20an, Donostiako Kur-saalean, poliziak 1960tik 1978ra arte egindako giza eskubide oso larrien biktima batzuei aitortza-jarduna egin zitzaion, hunkigarri bezain merezitakoa. Biktima batzuei: ez ziren guztiak baina hasita da bidea. Askotan biktima hauei erreferentzia egiteko poliziaz-abusuen biktimen esamoldea erabili izan ohi da. Nik nahiago dut giza eskubideen bortxaketa oso larriena adierazteko era, izan ere Estatuak, Estatuaren ordezkariak egin zutena, ez baita gehiegieria edota abusua soil-soilik: larria izan zen oso egindakoa. Nortzuk eta Estatuaren ordezkariak, agintariak, poliziek, poliziek in ados zeudenek zer eta jendea hil, erail, bahitu, jipoitu, torturatu, mehatxatu, umiliatu egin zuten. Hori egin zuten zergatik eta motibazio politikoz: alegia, biktimarioek, ideologia jakin bati helduta beste ideologia mota askoren aurka jarduten zuten.

Eta hori egin zen Estatuaren aparatua ofizial anitzetatik: batzuetatik delituak zuzen-zuzenean egiten (egile materialak); beste askotatik horri es-talkia ematen: hala nola, eliza katolikoaren hierarkia zati handi batetik; egunkari jakin batzuetatik; enpresatalde jakin batzuetatik; epaile, fiskaltza... Horiek ere laguntza eman zuten: egile intelektual edota konplize izan ziren.

Delitu larriak egin eta horiek gero estali, ukatu... areago, pertsegitu egin zituzten delituok salatu nahi izan zituztenak. Eta gainera ahaztu behar omen ginen horretaz.

Espainiako Konstituzioaren aurretik, zein ondoren ere, Estatuok ordezkariak eta ingurukoek gure herrian aurrera eramandako tamainako injustiziarri buelta ematea ez da lan makala, Giza Eskubideen Nazioarteko zuzenbidea gure alde eduki dugun arren. Izan ere, Espainiako Gobernuak hori guztia -edo zatika- aitortzearen aurka behin eta berriro azaldu baita orain arte. Horregatik, isilatasun-ha-

rresi lotsagabe hori apurtzeko, «hemengo» bideari, Euskadiko bideari ekin zitzaion. Bidea ofizialki hasi zen 107/2012 Dekretuaren eskutik, 1960tik 1978ra arteko eperako biktimak bakarrik aitortuz, eta betiere egileak funtzionario publikoak baldin baziren, hilketa edo lesio iraunkorrekin loturik edo beraien jardueraren baitan arituz.

Dekretua, biktimen definizioan zein denbora-epaen mugatua, ez zen egokiena giza eskubideen urraketak arautzeko, batetik; eta, bestetik, Euskadiko Alderdi Sozialistak, Patxi Lopez lehendakari zela eta Dekretua Gobe-mutik bultzatzen ari zenak, une horretan ez zuten biktimengan konfiantza handirik pizten. Baina hasi egin zen: zailena izaten dena. Denbora aurrera joan ahala, ordea, Euskadiko Alderdi Sozialistaren erantzule batzuk: hala nola, Manuela Carmena -dekre-tua sortzeko aholkulari lanetan orduan-, Ines Ibañez de Maeztu -Giza Eskubideen zuzendaria- edota Idoia Mendia -Gobernuko sailburu eta bozeramailea-, besteen artean, beraien konbentzimenduari eta konpromisoari eustearen poderioz bidea egiten joan ziren ahalik eta legegintzaldi berria, orain bukatzeko zorian daukaguna, heldu zen arte.

Urkkulleren lehendakari zapean sortutako Bake eta Bizikidetzeta Idazkari-tza orokorrak bigarren urratsa egin nahi izan du biktima horien aitortpen-bide mallartsuan. Horretarako apirilaren 26ko gobernu-kontseiluan lege-egitasmoa onartu eta legebiltzarrera bidali zuen bertan eztabaidatu eta, gehiengo alde izanez gero, onartua izan dadin.

Lege egitasmoak hobekuntza nabarmen batzuk baditu: lehenik eta behin, legea bada, horrek ahalmen sinbolikoa dauka. Biktimak aitortuak izango dira Estatu demokratikotan giza legezko den bidetik: herri osoa ordezkatzeko duen lege-mailako bidetik hain justu ere. Legeak herri-plazan aitortpena, argia, egia dakartza eta neurririk horretan justizia eta kalte-ordaina ere bai. Bigarrenik, biktimen definizioa handitzen da aurreko dekretuaren aldean: funtzionario publikoek ez ezik, norbanakoez ere egindako giza eskubideen urraketak legearen objektu bilakatzen dira, motibazio politikoz Estatu-ordezkariak baino eginez jar-

dunetz gero. Gainera, urraketa behin betiko emaitza jakin batekin lotuta egotea (hiltzea, betiko lesioak...) ez da halabeharrezko betekizuna izango, biktima gisa aitortua izateko, tortura eta bestelako tratu txar larriak arautzeko aukera zabaltzen da. Hirugarrenik, berme juridikoak nabarmen hobe-tu dira, biktima nor den erabakiko duen batzordea sendotuz azuki medi-kuen parte-hartze zuzenarekin. Lau-garrenik, prestazio maila igotzen da adibidez osasun alorrean edo kalte-ordain muntan. Azkenik, legeak atzera eraginez aritzeko aukera ere zabaltzen du, bidean gelditu diren per-tsonak berreskuratzeko.

Baina legeak ere mugak ditu: 1999ra arte besterik ez da iristen, esaterako, arrazoi teknikoak direla kausa; eta oro har, lege-hizkuntza «apala», tekniko-koa, da. Horrek, ordea, badu azalpena: legea egin da, fede oneko edozeinek onartu ahal izan dezan. Inork ez du ait-zakia teknikorik izango legeari ezetz esateko, izan ere adostasun politikoa-ren bide egindakoa baita, gai minbera bezain garrantzitsua babesteko as-moz. Euskadiko «bidea» jarraitu nahi da, inoren kontra jo barik, baina aurrera egin ez irmotasunez. Legea ere, hortaz, eginda dago isilbidezko eskae-ra batez. Espainiako Gobernuak ez ba-du hau guztia arautu nahi, utz dieza-gula guri egiten. Eta horren apustuan, gobernu zentralarekiko talka saihestu nahi izan da biktimen duntasun-es-tandar gutxienekoa errepstatuz.

Bat baino gehiagok ez luke, ziurre-nik, honelako lege bat inoiz ikusi nahi izango eta beti aurka egiteko prest egongo da. Baina gutxiengo da gure gizartean, biktima guztiekiko empatia gero eta nagusiago den aldiotan. Le-gea, botilak bezala, erdi-hutsik ala er-di-beteta ikusi ahal izango dugu eta zi-legi izango da are gehiago nahi dute-nen kritika. Baina aukera historikoa galduko genuke gure legebiltzarrean eztabaida sutsuan sartuz gero iparra galduta eta legea -botila- barik gelditu-ko bagina. Funtsean bezain garrantzi-tsuu bada, kasu honetan, bidean, gure bidean, geldiz ez gaitetzen.

Lege honek nazio ikuspegia eska-rtzen du, eta kosta ala kosta, berri ona litzateke onartzea, duda barik, bikti-mentzat, alderdi politikoztat, gizar-te osoarentzat. Ez dezagun abagunea gal!